

**1962 LIZARDI POESIA-SARIAREN OIÑARRAK**

Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak amar milla pezetako sari bat sortu du urtero emateko Euskaltzaindiaren ardurapean. "Lizardi" poesia-saria olerkarien klasean ari diranentzat, eta lau poesia-sari bertsolarien klasekoentzat ornituko ditu.

"Lizardi" sariaren oiñarriak dira:

1. Bost milla pezetako sari bat emango da ezin zatitu izango dana.
2. Bialtzen diran poesia-lanak nai dan bezelako luzeera eta gaia izan dezakete eta bertsotan euskeraz egñiak izan bear dute.
3. Juzgua emango duen juracua Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez lanak bialtzeko epea bukatzen danean.
4. Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6. Bilbao) 1962 maiatzaren 24-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu.

**ANTONIO BILBAO MONASTERIO 1962 LIZARDI POESIA SARIAREN IRABAZLE**

Manuel Lekuona, Antonio Arrue eta Luis Mitxelena juradua osatzen zuten jaunak Donostian bildu ziran garagarrillaren 8-an erabakitzeke nori eman saria eta "Irribarre ta lore" izeneko olerkiari eman zioten. Egillea Antonio Bilbao Monasterio Morga-koa da. Aipamen berezi bat merezi zuela adierazi zuten "Illobi izengabea" deritzan olerkiak. Egillea Eusebio Erkiaga du.

**1962 URTEKO POESIA SARIAK BERTSOLARIEN KLASEAN ARI DIRANENTZAT**

Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak amar milla pezetako sari bat sortu du urtero emateko Euskal Akademiaren ardurapean. "Lizardi" poesia saria olerkarien klasean ari diranentzat, eta lau poesia-sari bertsolarien klasekoentzat ornituko ditu.

Bertsolarien klasean ari diranentzat ipintzen diran poesia-sarien oiñarriak dira.

- a) Sariak izango dira: 1. Bi milla pezeta; 2. Milla ta bosteun pezeta; 3. Milla pezeta; 4. Bosteun pezeta.
- b) Urtearen barruan argitaratutako bertso-paperik onenak sarituko dira. Bertso-paper inprimatuaren amar ale bialdu bear dira Euskal Akademiara (Ribera, 6. Bilbao). Bialtzeko epea 1962 azaroaren 29-an bukatzen da.
- d) Gaia libre.